

Izotz hockeya ♦ Saillkapen faseko lehen itzulia bukatzeko hiru partida geratzen zaizkio, eta 5. da

Hormadi, iaz baino hobeto

Denis Perez: «Rouen kenduta, gainerakoen artean lehia estua dago»

Koldo Alduntzin / Angelu

ELITE LIGA atsedenaldiran den arren, Hormadiko jokalariek lehia eta entrenatzen jarraitzen dute hilaren 14an Caenen jokatzeko. Taldeko gehienek Frantziaren kontra jokatu zuten herenegun, Bordelen, All Starsekin: Raymon, Vorobel, Carry, Dimet, Baldris, Lahtinen, Dostal, Lapinkoski, Bilbao eta Larroque. Solaux Suitzan da etorkizuneko Frantziarekin eta Amselem 21 urte azpitikoarekin.

Lehen fasea amaitzeko hiru partida geratzen zaizkio Hormadiri. Azken jardunaldian 2-2 berdindu zuen Amiensen —urriak 28—. Egun bosgarren postuan da, 10 punturekin, lau partida irabazi, bi berdindu eta bost galdu dituela. 30 gol sartu ditu eta 34 hartu. Rouen da aitzin postuan, 21 punturekin, hamar partida irabazi eta bat galdu duela. 49 gol sartu ditu eta 19 hartu.

Dostal eslovakiarrak du puntu gehien Hormadin: 13 (3 gol eta 10 asistentzia), Vorobelek 12 ditu (6 gol eta 6 asistentzia), Izagirrek 8 (4 gol eta 4 asistentzia), Larroquek 6 (3 gol eta 3 asistentzia). Jarraian, Baldris (5 p.), Carry, Lapinkoski, Manson (3 p.), Amselem, Coulombeix, Perez, Lahtinen eta Solaux (2 p.) eta Patard (1).

Orain artekoaren balantzea egiteko eta aitzinera begira taldea nola ikusten duen jakiteko, Denis Perez-



KOLDO ALDUNTZIN

Hormadiko Denis Perez, taldekideen aurka ariko da gaur Frantziarekin.

kin mintzatu ginen; Perezek du Hormadi taldean esperientzia handiena. Normandiarrak 35 urte ditu, eta dagoeneko lau Olinpiar Joko ditu bizkarrean. Bost urterekin hasi zen hockeyan, eta gero Caenen eta Rouenen jardun zuen. Rouenekin Frantziako txapel bat irabazi zuen. 1980tik 1990era Français Volanten aritu zen, eta 1999an heldu zen Angelura, Manheim (Alemania) taldetik.

Hormadiko managerra izango da jokatzeari uztean,

DENIS PEREZ

«Hainbat partidatan bastapenetik sartu ditugu golak, baina gero diziplina falta izan zaigu»

eta horixe izan zen bigarren arrazoa Angelura etortzeko. Egun, jokatzeari gain, administrari gestioak egiten ditu taldean.

Asteartean Caenen eta hilaren 18an Grenoblen

«Oraingo ez gaude gaizki sailkatuta, eta ez gaude aitzin postuetatik hain urrun. Hori ona da, batez ere kontuan hartzen badugu laster bi partida jokatu ditugula etxetik at (Caen eta Grenoble) eta hiru segidan etxean. Etxeko puntuak ziurtatzen baditugu ongi jarriko gara bigarren faseari ekiteko», esan zigun Perezek.

Iazkoarekin alderatuta, diru asko zuten taldeak zudela, eta zaila zela. «Aurten, aitzitik, birmoldaketa egon da, eta indartsuena Rouen bada ere, ez da gaindiezina. Gainerakoen artean oreka dago, eta zaila da jakiten zeinek amaituko duen buruan. Gu saiaturako gara ondoen sailkatzen».

Hainbat partidatan jokalariek arreta galdu izan dutela egotzi diegu kazetariok, eta hau zioen internazionalak: «Aurten errazago ari gara golak sartzen, batez ere partidaren aitzin zatian. Gero, egia da diziplina falta izan zaigula, eta arlo horixe zaindu behar dugu derrigorrez».

Egutegi berezia du 2000-2001eko sasoiak, eta zenbaitetan lauzpabost partida ere jokatu dituzte erreskadan etxetik kanpo. Perezek zioen ez dela batera koherentea, eta nahiko nahasgarria gertatzen ari dela, baina aurre egin behar zaiola.

Aizkora ♦

Olasagastik 3,65 metroko zutikako pago enborra ebakiko du igandean

Zarauzko Urdaneta auzoan ariko da, eta parean Izeta II.ak 100eko zilindroarekin jardungo du

Koldo Alduntzin / Donostia

AZKENALDIRAN sarritan ari gara aipatzen Joxemari Olasagasti. Alde batetik Euskal Herriko txapel nagusia galdu zuelako. Bestetik, bi apusturako proposamena egin zuelako. Eta orain, igandean erronka neketsua duelako Zarauzko Urdaneta auzoan (Gipuzkoa).

Urdanetan (13:00), 3 metro eta 65 zentimetroko gerri-buelta duen pago enborra ebakiko du, baina zutika. 1,20 metroko diametroa du, eta uste dugu ematekoa dela, 100 urte inguruko bizitza izan zuelako orain gutxi bota arte. Baserri baten ondoan zegoen, eta, lehortzen hasia zela eta traba egiten zuelako botatzea erabaki zuten.

Igeldokoak, zuhaitza botatzera zihoazela jakin eta ebakitzeko prest zegoela jakinarazi zuten antolatzaileei. Urriaren 18an egin zituen argazkiak eta gainerakoak, eta Urdanetako jaietan izango da ekitaldia.

Kontuan hartuta Miel Mindegia 21 minutu eta 36 segundotan ebaki zuela etzanda jarritako 3 metroko enborra, Legorretan, ekainaren 4an, pentsatzekoa da ordu erditik gora beharko duela Olasagastik enbortzarra erdibitzeko. Berarekin batera, Izeta II.ak 100 kiloko zilindroarekin jardungo du Igeldokoak enborra ebaki arte.

Apusturako hitzordua larunbatean

Olasagastik apustua jokatzeko deia egin zuen, eta biharko jarri zuen hitzordua, Tolosako Cantabrico tabernan. Igeldokoa ordu batetik ordu bietara egongo da. Milioia jokatu luke lanerdietara, eta Eguberriak baino lehen jokatzeko proposatu du.

Eslovakia-Letonia eta Frantzia-All Stars, Angelun

K. Alduntzin / Angelu

GAUR hasiko da Naziarteko Angeluko Torneo, eta igandea bitarte sei partida jokatu dituzte lehia ariko diren lau taldeek; hots, Eslovakiak, Frantziak, Letoniak eta All Starsek. Gogoratu behar da Frantziak eta Letoniak 2002. urteko Olinpiar Jokoetarako saillkapen fasea prestatzea dutela xede. Heldu den urteko otsailean ukanen dute fase hori, Austria eta Danimarekin batera, Klagenfurt (Austria).

Horrez gain, Frantziak A

Maila galdu zuen iazko Munduko Txapelketan, eta hara itzuli nahi du lehenbailehen; 2001eko apirilean jokatu da mundiala. Kontuan hartuta Eslovakia munduko onenetakoa dela eta All Stars taldean Frantziakoak ez diren jokalaririk onenak direla, bistan da torneo erakargarria izango dela ikusgai Angelun. (Lapurdi).

Gaur bi partida hauek jokatu dira, La Barren: Eslovakia-Letonia (17:00) eta Frantzia-All Stars (20:30). Eslovakiak, egun, antzeko hiru talde indartsu

osa ditzakeela esan zuen Heikki Leime finlandiar entrenatzaileak torneoaren aurkezpenean. Jakin ahal izan dugunez, 23 urteko selekzioa ariko da. Letoniak goren mailako jokoa du.

Bigarren partida All Starsek eta Frantziak jokatu dute (20:30). All Starsek Frantziaren kontra jokatu zuen herenegun, eta 3-5 galdu zuen. Bozonek gol bat sartu zuen, eta Frantziako jokalaririk aipagarriena da; Suitzako Luganon dihardu. Briand ere onentsuena da, eta Alemanian ari da.

All Starsi dagokionez, Hormadiko Karlos Gordobil eta Iñaki Izagirre dira euskal dunak. Horiakin batera, taldeko Raymond, Lahtinen, Vorobel, Baldris, Dostal eta Lapinkoski ariko dira. Bestetik, Bilbao Frantziako zerrendan dago, baina ordezkoa da, beraz, litekeena da All Starsekin jokatzeko.

Frantziaren kontra oso partida ona egin zuen All Starsek, eta Raymond kanadarrak aukeratu zuten partidako onena. 1-2, 1-1 eta 1-2 izan ziren zatietako emaitzak, eta 3-3 ere aritu ziren.